

Unidad Docente Multiprofesional de
Atención Familiar y Comunitaria de Álava
Arabako Familia eta Komunitate Arretako
Irakaskuntzako Unitate Multiprofesionala



Osakidetza

Prestakuntza-
ibilbidea: Familiako
eta komunitateko
BAEE ARABA

2026

SARRERA

- 1. IKASKUNTZA-AGERTOKI NABARMENAK ARABAKO IUMan**

- 2. BARNEKO ERIZAIN EGOILIARREN URTEKO PROGRAMA**
 - a) HELBURU OROKORRAK (BOE)
 - b) PRESTAKUNTZA-IBILBIDEA: PRESTAKUNTZA-EGONALDIAK

- 3. TXANDAKETEN IKASKETA-HELBURUAK**
 - a) SARRERA: FAMILIA- ETA KOMUNITATE-ARRETAKO EGOILIARREN PROGRAMAKO GAITASUN-ARLOEN ETA EREMUEN LABURPENA
 - b) IRAKASKUNTZA-HELBURUAK ETA PRESTAKUNTZA-BLOKEETAKO BALIABIDEAK

- 4. PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOA ETA ZEHARKAKOA**

- 5. BESTE JARDUERA BATZUK**

SARRERA

Ongi etorri Arabako Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntzako Unitate Multiprofesionalera eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzura.

Eskerrak ematen dizkizugu Familia eta Komunitate Arreta hautatzeagatik, espezialitate zirrargarria baita, eta gizartean eta osasun-arloan eragin handia baitu.

Espero dugu zure egoiliar-aldian ahalik eta gehien aprobetxatzea prestakuntza-aukerak, eta zure egonaldiaz disfrutatzea.

Gida honen helburua da zure egoiliar-aldia errazago hastera. Horretarako, gure Irakaskuntzako Unitate Multiprofesionalaren antolamenduari buruzko oinarrizko informazioa eta espezialitatearen arloko beste alderdi interesgarri batzuk emango dizkizugu.

EGOILIARREN DEKALOGOA

- I. Garatu zure interesak, egin ikerketaren alde, eguneratu une oro zure jakintza. Egin galderak zeure buruari.
- II. Jarrera kritikoa izan, aztertu egoera, bilatu hobekuntzak zure eguneroko jardunean.
- III. Sustatu elkarlana beste profesional batzuekin, taldeko parte izanik. Garatu talentu interdependentea.
- IV. Tratatu zure lankideak adeitasunez, errespetuz eta leialtasunez.
- V. Zure pazienteei arreta emateko, erabili haien izen-abizenak. Teknikoki ona izateaz gain, teknikari ona izan behar da.
- VI. Zure lanak bat etorri behar du zure zerbitzuaren xedearekin eta ikuspegiarekin. Lan egin lider modura.
- VII. Zure erantzukizunak zeure gain hartu. Eskatu laguntza ez bazaude zure erabakiez ziur.
- VIII. Jarraitu lanbideko printzipio etikoak.
- IX. Parte hartu modu aktiboan zure espezialitateko foroetan.
- X. Zure prestakuntzako ikasketa-memoria zure jarraitutasunaren, ahaleginaren eta zure kide egoiliarrek eta Irakaskuntzako Unitateko gainerako profesionalek sustatu duten ingurunearen emaitza da.

1. IKASKUNTZA-AGERTOKI NABARMENAK ARABAKO IUMan

Osasun Komunitarioa

Komunitatearen osasunaren agertokia oso ona da. Gaur egun, **ikastetxeen % 100ek** sektorearteko jarduerak dituzte edo beste eragile batzuekin batera parte hartzen dute hiriko osasun-sare lokaletan.

Gainera, gaitasun-eremu hori garatzen laguntzen dugu, eta horren aldeko apustua egiten dugu, ekimen eta programa horietan parte har dezazuen. Egoiliarrek zuzendutako **programa propioak** ditugu, komunitateari prozesu arinetan heztekoa eta BBB- lehen sorospenak esaterako. Gainera, honako hauek eskuratzeko aukera izango duzue: Osakidetzaren Estrategia Komunitarioa zabaltzen ari diren erizain komunitarioekin (familiako espezialistak) **errotazio espezifikoak**, proiektu eta esperientzia arrakastatsuetan oinarritutako prestakuntza espezifikoak, eta Jarduera Komunitarioari buruzko **guardia-moduluak** ere.

Ikerkuntza

Esperientzia-ikaskuntzaren aldeko apustuaren barruan, BAME4/BAEE2 urtearen amaieran aurkezten den **Egoitzaldiaren Amaierako Ikerlana (EIL)** sartzen da programan. Lan hori irakaskuntza-unitateak sustatzen eta tutorizatzen du gertutik, osasun-zentroko tutoreekin lankidetzan.

EIL horietako batzuk espezialitatearen esparruko aldizkarietan **argitaratu** dira eta **jardunaldietan/kongresuetan** aurkeztu dira (eta horietan parte hartzeko aukera ematen dizuegu), baita sariak eta aintzatespena lortu ere.

Osasun-zentroa

Ibilbide/errotazio baten aldeko apustua egiten dugu. Horrek osasun-zentroan emandako denborari garrantzi nabarmena ematen dio, eten luzerik gabeko hasierako murgiltze-aldi bat izaten saiatzen dena. Horrekin batera, amaierako 5 hilabeteko bloke jarrai bat eskaintzen da ere, aurreko errotazio guztietan lortutako ezagutza praktikan jarri eta garatu ahal izateko. Zaintza-modulu malguk (arratsaldekoak edo asteburukoak) kontziliazioa eta errotazioak hobeto aprobetxatzea errazten dute.

Lehen Mailako Arretako erreferentziazko **tutoreak** ditugu, arlo horretan esperientzia eta eskarmentu handia dutenak. Gainera, Irakaskuntza-unitatearen printzipioek eta Gasteizko eta Debagoienako ezaugarriek ahalbidetzen dute zuen prestakuntza-prozesuaren jarraipen hurbila egitea, bai eta errotazioak/guardiak eta prestakuntza hurbilekoak izatea ere.

2. BARNEKO ERIZAIN EGOILIARREN URTEKO PROGRAMA

a) HELBURU OROKORRAK (BOE)

- **Osasun-beharrak identifikatzea eta osasun-zerbitzuetako zainketen erantzun zuzena ematea** herritarrei, edozein arlotan (arreta-zentroa, etxebizitza, eskola, lantokia...).
- Zainketen epidemiologiako **sare zelatariak** ezartzea eta zuzentzea.
- **Jarduera-adierazleak eta zainketen kalitate-irizpideak** garatzea, familia- eta komunitate-eremuan.
- Jarraipena eta luzetarako arreta areagotzea **norbanakoa eta familia zainketen beharraren ikuspegitik baloratzean**, haren inguruan eta **bizitzako etapa** guztietan, arreta berezia jarrita arreta **etxean** jaso behar duten pertsonengan.
- Modu eraginkorrean erantzutea **gaixotasun kritiko** nagusiak dituzten herritarren beharrei, bai eta **desgaitasun-egoerei, gaixotzeko arrisku-egoerei eta hauskortasun-egoerei** ere.
- **Esku-hartze eta parte-hartze komunitarioko** estrategiak diseinatu eta garatzea, gaixotasunaren **prebentzioan eta osasunaren sustapenean** oinarrituta.
- **Arretaren eta zainketen jarraitutasuna** bermatzea, modu eraginkorrean kudeatuta eta eskuragarri dauden giza baliabideak eta baliabide materialak **koordinatuta**.
- **Talde multiprofesionalen** funtzionamenduari laguntzea, parte-hartzearen, gogoetaren, analisiaren eta adostasunaren bitartez, eta errespetatuz norberaren eskumenak eta eremu komunitarioko eta Osasun Publikoko gainerako espezialista eta profesionalenak.
- Erizainen jarduera hobetzea familia- eta komunitate-eremuan, erizaintzako zainketen inguruko **ikerketaren** bitartez, eta ikerketa-lerro multiprofesionaletan parte hartuz.

b) PRESTAKUNTZA-IBILBIDEA: PRESTAKUNTZA-EGONALDIAK

LAGUNTZA-BALIABIDEETAKO TXANDAKETAK

Txandaketak modu indibidualizatuan ezarriko dira egoiliar bakoitzarentzat

LEHEN URTEA:

- 23 aste Lehen Mailako Arretan
- 17 aste Ospitalean
- 8/10 aste Lehen Mailako Arretan (haurren, familiaren eta emakumeen arreta)

BIGARREN URTEA:

- 3 aste Osasun Mentalean
- 4 aste osasun-arloko beste esparru batzuetan
- 38 aste Lehen Mailako Arretan
- 4 aste hautazko eta kanpoko txandaketan

GUARDIAK

Derrigorrezkoak (6-7 orduko 4 modulu)

- 2 guardia, 15:00etatik 22:00etara, **Ospitaleko Larrialdia**
- 1 guardia larunbatean edo igandean (edo 2 arratsaldetan banatua), 12 ordukoa, Lehen Mailako Arretan (**EAG, Etengabeko Arreta Gunea**)

Borondatezkoak (gehienez 4 modulu gehiago)

- Borondatezko 7 ordura arteko 4 modulu.
- Tipologiak; larrialdi orokorrak/pediatria, EAG (arreta komunitarioa), ekintza komunitarioa, ikerketa garatzeko moduluak, prozedura edo kasu konplexuak kontsultatzea LMAN.

BLOKEAK	Baliabidea	Aldia	Urtea
1. blokea: Lehen Mailako Osasun Arreta (I): 26 aste • Erizaintzako kontsulta HELDUEKIN eta ADINEKOEKIN (eskatua, programatua, etxekoa) • Esku-hartze komunitarioak Larrialdiak: 3 aste	OSASUN-ZENTROAK	maiatza-abendua	E.1
2. blokea: Ospitaleko Arreta: 14 aste • Kardiologia kontsulta Eta errehabilitazio kardiakoa: 2 aste • Etxeko ospitalizazioa: 2 aste • Dermatologiako kontsulta: aste bat • Kirurgia baskularreko kontsulta era zauri konplexuak: 2 aste • Minari modu aktiboan aurre egiteko unitatea: 1 aste • Ostomien kontsulta: 2 aste • EGEH-Ospitale-loturako erizaina (patologia anitzekoa): 1 aste Endokrinologiako kontsultak (hezitzailea): 3 aste		Abendua-apirila	
3. blokea: Lehen Mailako Osasun Arreta (II): 8/10 aste • Kontsulta emaginarekin: 2 aste edo Emakumeen arreta: minbizi ginekologikoa, menopausia... edo Haurdunaldia eta erditzeko prestakuntza, amagandiko edoskitzearen sustapena edo Familia-plangintza • Pediatria: 6 aste edo Haur osasuntsuaren kontrola, eskola-osasuna, immunizazioak...	EMAKUMEENTZAKO ARRETA-ZENTROA OSASUN-ZENTROAK	Apirila-maiatza	
4. blokea: Osasun Mentala: 3 aste • Droga-mendekotasunen prebentzioa: 1 aste • Larrialdietako osasun mentalean, alkoholismoan, elkarrizketa klinikoan esku hartzeko programak: 2 aste	DROGA-MENDEKOTASUNEN PREBENTZIOA (GASTEIZKO UDALA) ARABAKO OM SAREA	Ekaina-abendua	
5. blokea: Beste esparru batzuk (IV): 4 aste • Behaketa Epidemiologikoko Unitatea eta Osasun Publikoa: 2 aste Espetxe Osasuneko Zentroa: 2 aste	OSASUN-SAILA. GASTEIZKO UDALA ZABALLA EOS		
6. blokea: Hautazko txandaketa: 4 aste			
7. blokea: Lehen Mailako Osasun Arreta (IV) 36 aste (32 + 4 opor) Pluripatologiko eta kroniko konplexuen arreta: EPAK, 4 aste • Landako osasun-zentroa: 3 aste • Zainketa aringarriak: 3 aste • Osasun-arreta, Lehen Mailako Arretako zentroan: Etxean ospitaleratuta dagoen kronikonikoen arreta • Erizaintzako kontsulta, osasun-hezkuntza indibiduala eta taldekoa, prebentzio-jarduerak, prozesu arinetako kontsulta, erizaintzako zainketak, paziente aktiboa, esku-hartze komunitarioa; Koordinazio soziosanitarioa, Erizain Komunitarioa (2 aste) ...	OSASUN-ZENTROA EPAK-taldea MURGIA/ZAMBRANA/ZUYA OSASUN ZONTROA ZAINKETA ARINGARRIETAKO LAGUNTZA-TALDEA OSASUN-ZENTROA Erizain Komunitarioen taldea	Urtarrila-maiatza	

ANEXO 2. Nº orientativo actividades asistenciales/formativas		
Área competencial	Actividad	Nº mínimo
Atención infancia y adolescencia	Visitas niño sano	100
	Consultas niños agudos y crónicos	50
	Participación programa salud escolar-preescolar	1
	Participación programa salud escolar-primaria	1
	Participación programa salud escolar-secundaria	1
	Participación grupal: educación afectivo-sexual o prevención de riesgos	1
	Consultas individuales a adolescentes	25
Atención a la salud general en la etapa adulta	Consultas enfermería. Adultos. Demanda o programada. Déficits de salud crónicos o agudos	300
	Visitas domiciliarias programadas	50
	Participación programa EpS grupal en enfermos crónicos	1
	Intervenciones de cirugía menor	20
	Participación en programas de técnicas diagnósticas y terapéuticas en AP	-
	Participación en programa de intervención comunitaria	1
	Participación en programa de ejercicio físico para la salud	1
	Urgencias en AP	200
Atención a la salud sexual, reproductiva y de género	Orientación para la planificación familiar	15
	Valoración y consejo sobre ITS (hombres/mujeres)	5/5
	Anticoncepción de urgencia e intervención educativa	10
	Atención y seguimiento mujer embarazada	10
	Colaboración asistencia partos	5
	Visitas puerperales (preferiblemente domiciliarias)	10
	Promoción lactancia materna	10
	Ed. para la salud sexual y convivencia entre géneros. Adquisición grupal	2
Atención climaterio hombres y mujeres	10	

ANEXO 3. Nº orientativo actividades asistenciales/formativas		
Área competencial	Actividad	Nº mínimo
Atención a las personas ancianas	Consulta de enfermería programada y demanda	300
	Taller para cuidadoras	2
	Intervención en programas de ejercicio físico para la salud	1
	Atención en domicilio a pacientes con deterioro cognitivo	25
	Valoración funcional y cognitiva en domicilio	25
	Intervenciones para el mantenimiento funcional, social y cognitivo en domicilio	25
	Coordinación de recursos socio sanitarios	5
	Atención a pacientes en final de vida en domicilio	10
Atención a las familias	Valoración-intervención global en familias con niños recién nacidos	2
	Valoración-intervención global en familias con niños escolares	2
	Valoración-intervención global en familias con adolescentes	2
	Valoración-intervención global en familias con síndrome "nido vacío"	2
	Familias unifamiliares de riesgo	2
	Familias con personas inmovilizadas	4
	Familias con ancianos con problemas de salud	25
	Familias con personas en final de vida	10
Atención Urgencias Emergenc	Atención hospitalaria urgente infantil	100
	Atención hospitalaria urgente adultos	100
	Atención urgente en centro de salud y domicilios	250
Salud Publica y Comunit	Intervención en situaciones de emergencia	10
	Actividades de vigilancia epidemiológica	2
	Intervención en gestión de programas de salud	3

2.TXANDAKETEN IKASKETA-HELBURUAK

a) SARRERA: FAMILIA- ETA KOMUNITATE-ARRETAKO EGOILIARREN PROGRAMAKO GAITASUN-ARLOEN ETA EREMUEN LABURPENA

GAITASUN OROKORRAK¹	Zerikusia duten gaitasun espezifikoak
GAITASUN-EREMUAK	
1. Jarrerak/Balioak/Profesionaltasuna	
2. Komunikazioa: asistentziala eta beste maila batzuetakoa	
3. Pazientearen zainketak eta trebetasun klinikoak	5. arloa
4. Ezagutzak	5. eta 6. arloak
5. Osasun-sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika	6., 7. eta 8. arloak
6. Ikaskuntzan eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako praktika (prestakuntza, hezkuntza eta ikerketa)	7. eta 9. arloak
GAITASUN ESPEZIFIKOAK. Espezialitatearen Programa Ofiziala (BOE)	
ARLOAK	
5. Familia- eta komunitate-arloko gaitasun kliniko aurreratuak	
5.1. Klinika eta metodologia aurreratuak	
5.2. Umeen arreta	
5.3. Nerabeen arreta	
5.4. Helduaroko osasun orokorraren arreta	
5.5. Sexu-, ugalketa- eta genero-osasunaren arreta	
5.6. Adinekoen arreta	
5.7. Familien arreta	
5.8. Larrialdi eta hondamendietarako arreta	
5.9. Ahultasuneko edo arrisku soziosanitarioko egoeretarako osasunaren arreta	
6. Osasun publiko eta komunitarioaren inguruko gaitasunak	
7. Irakaskuntza-gaitasunak	
8. Familia- eta komunitate-alorreko zainketen eta zerbitzuen kudeaketaren inguruko gaitasunak	
9. Ikerkuntza-gaitasunak	

1: Moran-Barrios J. Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias. Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 115-21. Hemen eskuragarri: http://www.hospitalcruces.com/documentos/actividadDocente/VISION_DOCENTE-SER_MEDICO.pdf

B) IRAKASKUNTZA-HELBURUAK ETA PRESTAKUNTZA-BLOKEETAKO BALIABIDEAK

1. blokea: Lehen Mailako Osasun Arreta (I eta III): 23 aste

- *Helburu orokorra:* Nerabeen, helduen, adineko pertsonen eta familien osasuna sustatzeko eta gaixotasunak prebenitzeko programak eta esku-hartzeak ezagutzea, plangintza egitea eta gauzatzea, bai banaka eta bai taldean.
- Esku-hartze eta parte-hartze komunitarioko estrategiak diseinatu eta garatzea, gaixotasunaren prebentzioan eta osasunaren sustapenean oinarrituta.
- *Baliabideak:* Osasun-zentroak, helduen eta adinekoen erizaintzako kontsultetan, etxeetan eta esku-hartze komunitarioetan parte hartuz.

2. blokea: Ospitaleko Arreta: 17 aste

- *Helburu orokorra:* Arretarako baliabideak, prozedurak eta teknikak eta larrialdi-egoerei dagozkienak ezagutzea eta maneiatzea.
- Gaixotasun kritiko nagusiak dituzten herritarren beharrak ezagutzea eta horiei erantzutea, bai eta desgaitasun-egoerei, gaixotzeko arrisku-egoerari, min kronikoa, hauskortasun-egoerari eta bizi-krisiari ere.
- *Baliabideak:* Ospitaleak (larrialdiak, erditzeak eta kanpoko kontsultak).

3. blokea: Lehen Mailako Osasun Arreta (II): 8 aste

- *Helburu orokorra:* Haurren eta nerabeen, helduen, adineko pertsonen eta familien osasuna sustatzeko eta gaixotasunak prebenitzeko eta sexu- eta ugalketa-arretako programak eta esku-hartzeak ezagutzea, plangintza egitea eta gauzatzea.
- *Baliabideak:* Osasun-zentroak, emaginaren kontsultan, emakumeen arretan eta pediatrian parte hartuz.

4. blokea: Osasun Mentala: 3 aste

- *Helburu orokorra:* Familiek arrisku-egoerei modu eraginkorrean nola egin behar dieten aurre jakitea (droga-mendekotasuna, indarkeria, etab.), eta familien osasun mentala ezagutzea. Pazienteekin, familiarekin eta gizarte-taldeekin komunikazio eraginkorra eta harreman terapeutikoa sortzea espezialitatearen eremuan.
- *Baliabideak:* Osasun Mentaleko Zentroak eta droga-mendekotasunen prebentzioa.

5. blokea: Beste esparru batzuk (IV): 4 aste

- *Helburu orokorra:* Behaketa epidemiologikoko programak, komunitateko osasunerako hezkuntzakoak, ingurumen-osasunekoak, maila desberdinen arteko koordinazioak, arreta osokoak eta arreta-esparru berrietakoak ezagutzea.
- *Baliabideak:* Osasun publikoko behaketa epidemiologikoko zentroak, esparru soziosanitarioak, espetxeak eta txandaketa ospitale-loturako erizain kudeatzaileekin (OLEK).

6. blokea: Hautazko eta kanpoko txandaketa: 4 aste

7. blokea: Lehen Mailako Osasun Arreta (IV): 38 aste (34 + 4 opor)

- *Helburu orokorra:* 1. blokean azaldutakoez gain, paziente pluripatologiko eta kroniko konplexuarentzako eta beste hauskortasun-egoera batzuetarako arreta-programak eta esku-hartzeak ezagutzea, plangintza egitea eta gauzatzea (mendekotasuna, hilurreneko egoerak...).
- Familia-eremuan eta komunitatean dauden gaixotasun kronikoei arreta emateko programak planifikatu, zuzendu, gauzatu eta ebaluatzea, beste espezialista eta profesional batzuekin batera.
- *Baliabideak:* Osasun-zentroak (hirikoak eta landakoak) eta paziente pluripatologikoei, kroniko konplexuei eta aringarriei arreta emateko programetan parte hartzea.


3.PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOA ETA ZEHARKAKOA

FORMACIÓN ESPECÍFICA EIR

- Instrumentos de valoración integral
- Educación para la salud individual y grupal
- Dinámica de grupos
- Ciclo vital y familia
- Casos complejos

FORMACIÓN TRANSVERSAL

- Salud Comunitaria
- Seguridad clínica
- Bioética
- Búsqueda bibliográfica y PBE
- Violencia de Género
- Tabaco y Alcohol
- Investigación cualitativa y cuantitativa
- Entrevista motivacional



4. BESTE JARDUERA BATZUK

Lehen urtea

-**Auzoko osasunaren diagnostikora** hurbiltzea, biztanleria ezagutzea, haien beharrak aztertzea eta osasunean aktibo daudenen mapaketa.

-**Talde-heziketako esku-hartzeak** garatzen (lehenik, behaketa eta analisi kritikoa; bigarrenik, erizainarekin batera parte hartzea).

-**Talde-heziketako programa bat diseinatzea** (jasotako prestakuntza teorikoarekin bat).

-Osasun-zentroko **etengabeko prestakuntzako saioetara joatea**.

-**2 kasu kliniko** garatzea (bat, patologia bat duen helduarekin; bestea, haur osasuntsuarekin); Kalitatezko elkarrizketa klinikoa egitea, pazientearekiko konexioari eta informazioa jaso eta eskaintzeari dagokionez. Gai izatea pertsonaren eta familiaren egoerara egokitutako arrazoibide kliniko eta terapeutikoa egiteko (zainketa-plana). Balorazioaren eta planaren erregistro egokia egitea, pertsonaren eta senideen informazio biopsikosoziala jasoko duena genogramaren bitartez.

-**Gatazka etiko** bat antzematea eta kasua tutorearekin eztabaidatzea, inplikaturak dauden balioak hartuta erreferentzia modura.

-**Saio kliniko** bat gauzatzea (kasu klinikoa, gai interesgarria...), eta hori egiteko, bibliografia zientifikoa bilatzea.

-**Ikerketarako galdera eta bilaketa bibliografikoa** proposatzea, bigarren urteko proiektua garatzeko.

-**Kontsulta medikoan** egotea eta behaketa kritikoa egitea; hala, familia-mediku diren lankideek ematen duten zerbitzuaren berri jakiteko eta *talde-lana bultzatzeko*. Horrez gain, proposa daiteke medikuntzako eta erizaintzako egoiliarrek *batera egitea zenbait lan*.

-Beste **jarduera interesgarri** batzuk; biltzarretara joatea, beste prestakuntza interesgarri batzuk, etab.

Bigarren urtea

-**Talde-heziketako esku-hartzeak** garatu eta elkarlanean aritzea (erretzeari uztea, paziente aktiboa...).

-Osasun-zentroko **etengabeko prestakuntzako saioetara joatea**.

-**1 kasu kliniko** garatzea (heldu konplexua, pluripatologikoa, adineko ahula, mendekotasuna duena...; bat kontsultan, eta bestea etxean); Kalitatezko elkarrizketa kliniko egitea, pazientearekiko konexioari eta informazioa jaso eta eskaintzeari dagokionez. Gai izatea pertsonaren eta familiaren egoerara egokitutako arrazoibide kliniko eta terapeutikoa egiteko (zainketa-plana). Balorazioaren eta planaren erregistro egokia egitea, pertsonaren eta senideen informazio biopsikosoziala jasoko duena genogramaren bitartez.

-**Gatazka etiko** bat antzematea eta kasua tutorearekin eztabaidatzea, inplikatura dauden balioak hartuta erreferentzia modura. Gutxienez, 3 GERTAKARI KRITIKO gauzatzea.

-**Saio kliniko** bat gauzatzea (kasu kliniko, gai interesgarria...), eta hori egiteko, bibliografia zientifikoa bilatzea.

-Egoiliar-aldian garatutako **ikerketa-proiektuaren** ahozko defentsa publikoa.

-Beste **jarduera interesgarri** batzuk; biltzarretara joatea, beste prestakuntza interesgarri batzuk, etab.